



30.–ROMULUS ETA REMUS (ERROMA)

Erroma izango zan munduko uririk ospetsuena, gizaldi askotan beintzak, bai aginterriaren buru lez eta bai Eleiza katolikuaren ardatz eta gidari lez.

Eneas'en ondorengoai zor dautse izatea Erroma'k. Onen birloba zan Rea Silbi'k seme bikiak izan ebazan Marte jainkoarengandik: Romulus eta Remus. Eta biatarik batek, Romulus'en sortu eba erroma.

Rea'ri erreg-eskubideak kendu eutsoezan, baiña erri zeia beragaz eukan. Agintari aundikiak eukan Rea'ren bildurra eta erri zeia aurka jagi ez zedin, emakumea eta seme bikiak Tiber ibaian itotea erabagi eben.

Baiña bikien seaskatzua ibai-ertzeko kañabera artean gelditu zan eta antxe aurkitu ebazan otso batek eta onek bere koba-zulora eroan ebazan eta bere umeakaz batera azi.

Oraindiño lau-oñian ebiltzala aurkitu ebazan Alba'ko erregearen artzain zan Paustolo'k eta bere soingaiñekoan batuta bere etxera eroan eta antxe azi ebazan.

Ogei urtera eldu ziranean, mutil sendo eta ausartak ziran biak eta zeozer egiteko ustez urten eben aita-ordearen etxetik eta Tiber ibaiaren ertzean erri bat sortzea erabagi eben eta asi ziran lanean. Lana aurreratuta eukenean eztabaideak urten eban bien artean erri barri orreri zein izen ipiñi.

Bakoitxak bere izena ezarri nai eutson eta azkenean burrukea egin eben bien artean eta Remus'ek bizia galdu eban bere anaiaren eskuetan. Romulus'ek erriari "Roma" izena ipiñi eutson, ez Romulus eta ez Remus.

Erria bizilagunez bete nai eban ainbat lasterren eta etozan guztiak artzen ebazan, gizailtzailleak naiz iges egindako morroiak.

Ederto osotu eban erria Romulus'ek baiña emakume gitxiegi eukan eta orduan baimena emon eutsen gizon-zko erritarrai albo-errietako neskatiak arrapau eta ekarteko eta orrelan egin eben.

Ostutako alaben billa joan ziran Erroma erribarri orretara asarre Saindarrak. Ordurako bat eginda egozan Erroma'ko lapurrak eta emazte sabindarrak. Eta guztiai eskatzen eutsen bakeak egin eta alkartuta aberri aundi bat sortzeko.

Orrelan egin zan eta Romulus izan eben errege ogeta amasei urtean Urrengo Romulus'eri billa etorri jakon Marte jainkoa bere aita eta zaldi-burdian artu eta Olinpo'ra eroan eban. Romulus'eri irudia ipiñi eutsoen erriko panteoi nagusian eta sortuta geratu zan aberri indartsu bat.

OLAZAR'tar Martin'ek